



# Jakin filosofatzen

## «Ni hitzaren alde nago, erabat»

Jabier Muguruza

◇ Caffè Moka dago Alberto, zure lehen nobelako pertsonaia. Zeri begira?

Kanpora, baina barrura. Tipo gogoetatsua da, baina pentsamenduarekiko mesfidantza puntu bat hasi zaio; ikasi du inkontzientearen eragina ere handia dela.

◇ Zergatik diozu?

Gizakiaren nartzisismoarentzat zauri bat da onartu behar izatea gure jokaeraren zati handia kontzientziatik at dauden indarrek gidatzen dutela.

◇ Zer dio garaiaz?

Binomioekin aztertzen du garai gaseoso hau, bizi dugun al-daketa izugarria: abiadura/pentsamendua, irudia/hitza, eta beste. Abiadura traba da pentsamenduarentzat, Bourdieuk duela hogeita hamar urte esana.

◇ Pentsatzeko isiltasuna, beraz, eta ez giza zarata.

Segur aski, bateragarriak dira. Ni hitzaren alde nago, erabat. Ez diskurtso sakonen alde bakarrik, baita berriketan hitz eta pitz aritzearen alde ere. Hitza, pertsonaren euskarri gisa.

◇ Hitza vs irudiaz, zer uste duzu?

Irudia erabat nagusitu da. Nire galdera hauxe da: zenbate-raino ari da hori hitza baldintzatzen? Barcelona Fashionen

azken edizioan erabilitako eslogana: «Begiratzen ez zaituzten eguna egun galdua da».

◇ «Aldaketa izugarria». Zer ikusi duzu errotik aldatzen?

Dena posible dela sinestea –betiko bizitza barne–, iraganaren ezabaketa, askotariko familia motak, teknologiaren eta zientziaren bat egitea, masa-nartzisismoa, alertan bizitzea..., gauza aunitz.

◇ Ziurtasunak bai ala hobe ez?

Ruperren kantik ondo dio: gizakiak zalantza behar du, baina heldulekuren bat ere bai. Tradizioa asko kritikatu dugu eta bazen motiborik, baina tradizio baten parte izateak mesedea ere ekartzen du.

◇ Zein ekarri dizu zuri?

Historia familiarra, tradizio eta kultura bateko partaide izatea. Pertsonak identifikazio-sistema bat garatzea komeni da; bestela, noraezean goaz.

◇ Galdu duzu ziurtasunen bat bidean aurrera?

Askatasunean asko sinesten nuen, adibidez, eta orain onartu behar dut erlatibizatu beharra dagoela. Sartrek garbi zuen: askatasunera kondenatuta gaude; beraz, arduratsuak izatera kondenatuta.

◇ Izan zinen umea atzetik segika omen duzu. Zer diotsu?

Haurren onura bilatu beharrean, geure hutsuneak berdintzeko erabiltzen ditugula umeak askotan.

◇ Haur bat izan daiteke filosofo txiki erraldoi bat?

Arrazoi poetikoaren ikuspuntutik, gauza zoragarriak esan litzake. Baina filosofatzea besterik da, nik uste. Zambranok zioen, poesian pertsona konkretua topatzen dugu; filosofian, unibertsa.



Itziar Ugarte Irizar

---